

HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzo bilera: Legarre

DATA: 2023/11/13

Saila	Laburpena	
Urbanismo	Bizilagun bat kexu da Legarre auzoaren irisgarritasunagatik. Udalari eskatzen dio, beste auzo batzuetan egin den moduan, pegoretan igogailuak jartzen laguntzeko.	Pegoretara iristeko arazoak ohikoak dira Eibarko eraikin askotan. Pegoretan igogailuak jartzearena bizilagunei dagokien erabakia da. Udalak eta Eusko jaurlaritzak didruz laguntzen dituzte irisgarritasuna hobetzeko lanak. Informazio guztia Debegesaren bidez jaso daiteke.
Zerbitzuak	Legarre 12 eta 10ean kexatzen dira kale-garbitzaileek ez dutelako garbitzen pegoren atzean dagoen karpa.	Mankomunitateak: Bizilagunak garbitzeko eskatzen duen patio edo karkaba (belarrez beteta eta zikin dago) ez da igarolekua, beraz, ez da publikoa. Ez da garbitzen ez dagokiolako Mankomunitateari.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexatzen da Mekolatik ez direlako pasatzen garbitzera. Gainera, inguruko hormak ez dira inoiz garbitzen.	Legarre auzoko bileraren ondoren (Mankomunitatea ere tartean zen), kexa jaso, eta gunea erabat garbitu zen, inguruko zikina eta sasiak kenduz. Arduradunak dioenez. gaur egun, mantentze-lanak egiten zaizkio. Horrez gain, orain dela 2-3hilabete ugerra kentzeko makina pasatu da. Mekola 6, 7 eta 8 zenbakietako hormei sasiak kentzeko makina pasatzen zaie ingurua garbitzen denean.
Hirigintza	Legarre 13ko bizilagun batek galdetzen du ea zein den kaleko uholdeei aurre egiteko irtenbidea.	Legarre 13ko ingurua kaleko beheko gunea da, eta uholdeak egonez gero ur-pilaketen ondorioak jasatzen ditu. Ur-saneamenduan hainbat hobekuntza egin diren arren, arazoa ez da guztiz konpondu. Gipuzkoako Urak entitatearekin batera ari da aztertzen Arrate Bide kalean zer egin daitekeen Legarrek jasotzen duen ura arintzeko.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzo bilera: Legarre

DATA: 2023/11/13

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Eremu horretako zirkulazioaz galdetzen du bizilagun batek, eta dioenez, atzeraka bakarrik irten daitezke bertatik.	Ez dago argi zein den bizilagunak aipatzen duen gunea.
Zerbitzuak	Egoitzaren azpiko garajeetako hustubideak oso zikin daudela dio eta Villa Marinako hormatik berriz ere ura irteten dela.	Mankomunitateak jakinarazten du hustubideak garbitu egin zirela auzo-bileraren jasotako kexaren ondoren.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Mekola 5eko uraren kalitateagatik, baita Legarre 6, 7 eta 8 zenbakietan lurlean dauden zigarrokinengatik ere (5 zenbakiaren atzealdea).	Mankomunitatearen erantzuna: Egia da bizilagun batek zigarrokinak kalera botatzen dituela (ikusi egin dute botatzen) eta inguruan zigarrokinak daudela. Arazoa, ordea, ez da garbiketa, berriro ez gertatzea baizik.
Zerbitzuak	Ardantza eta San Juan kaleen arteko igogailuetan dagoen txizaz eta zikinkeria handiaz kexatzen da auzotar bat.	Igogailuak goizeko 6:00-7:00etatik aurrera garbitzen dira, urteko 365 egunetan. Arazoa ez da garbiketa falta, heziketa falta baizik.
OBRAK	5. proiektua dela-eta, bizilagun batek galdetzen du ea igogailuak eta parkeak egiten ari diren. Informazio gehiago nahi du.	Beheko igogailua jartzeko eta urbanizatzeko lanak 2024ko uztailen amaitu ziren.
OBRAK	Galdetzen du ea bigarren igogailua egingo den eta non.	Urbanizazio-lanak amaituta, bigarren igogailua behar ote den baloratuko da. Azkenean igogailua egingo balitz, kokapena bizilagunekin adostutakoa izango litzateke.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzo bilera: Legarre

DATA: 2023/11/13

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzotar batek dioenez, Mekolan ez dago ganorazko pasabiderik, eta, hormetatik oso gertu pasatu behar da. Arriskutsua dela dio. Ibilgailuen eta oinezkoen artean bizikidetza-arazoa dago.	Mekola kalea estua da, eta beti izan du koesistentzia-izaera. Ez dago nahiko zabalerarik espaloiak egiteko. Hori dela-eta, oinezkoak lehenesten dituen koesistentzia-seinale bat jarri da. Arazoaren irtenbidea izan daiteke arauak jartzea ibilgailuk eta oinezkoak batera ibiltzeko, errepideko zirkulazioa bizilagunentzako bakarrik utziz, bidegurutze seguruak mugatuz eta zati estuenetan lehentasuna oinezkoei emanez.
Udaltzaingoa	Milafloreseko bizilagun batek zorionak eman dizkio Udalari bertan egindako lanengatik. Bestalde, kexu da patio bat dagoelako txakurkakaz eta -txizaz beteta. Txakurrak ez daude behar bezala zainduta (txertorik ez). 5. zenbakian.	Jabeari jakinarazi zitzaion eta
Udaltzaingoa	Ibilgailua batek zepoa duela dio auzotar batek, eta Udaltzaingoa ez duela handik erretiratzen. Kotxe horrek aparkaleku bat hartzen du, ingururako beharrezkoa dena. Milaflores 5.	Kexa jarri eta egun batzuetara eman zitzaion irtenbidea arazoari.
Zerbitzuak	Mirafloresen bi kale-argi daude ez dabilenak.	Bileraren ondoren denak aztertu eta konpondu egin ziren.
Udaltzaingoa	Milafloreseko bizilagun batek eskerrak ematen ditu inguruan egindako lanengatik, baina, era berea, kexu da bizilagun batzuek aparkatu ezin den eremuan aparkatzen dutelako. Ingurutik pasatzeko eskatzen dio Udaltzaingoari.	Kontrol gehiago egongo da inguruan.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzo bilera: Legarre

DATA: 2023/11/13

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Garbitzen ez diren sasiz betetako bide bazterrak daude	Irailean, euren ardura den Legarreko eremuan sasiak kendu eta garbitu egin zen.
Zerbitzuak	Mekola Arratebide 16ko bizilagun bat kexatzen da Udaletxetik gora doazen eskaileren azken zatia ez delako garbitzen. Deituz gero ere, ez dira azaltzen. Galdetzen du ea azken zati hori garbituko den Eskatzen du hormak kendu eta haien lekuan barandak jartzea.	Mankomunitateak jakinarazten du bileran kexa jaso ondoren (Mankomunitatea ere bertaratu zen), ingurua erabat garbitu zela eta ordutik mantentze-lana egiten dela, goitik behera garbituta. Bestalde, etxearen urbanizazioa dela-eta, barandak jarri dira. Beraz, dagoeneko ez dago arazorik.
Hirigintza	Berriz ere galdetzen du Legarreko erkidegoko igogailuei buruz. Eskatzen du Udalak diruz lagundu dezala horiek egiteko obra, oso garestiak direlako.	Pegoretako irisgarritasunari aurre egiteko azterketak egitea bizilagunei dagokie. Eibarko udal-teknikariak prest daude balizko irtenbideak aztertzeko, eraikinaren ezaugarriak aztertzen dituzten erkidegoko teknikarien hasierako proposamena kontuan harturik (proposamenen hasierako krokisekin). Horrela, erkidegoak ez du proiektua gartu behar izango, eta alferrikako gastuak saihestuko dira.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzo bilera: Legarre

DATA: 2023/11/13

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Milafloreseko bizilagun batek erantzuten dio zerbitzuburuari inguru hori baso bat dela eta udaberrian loratu egiten direnez, arazo hori sortzen dela. Behin baino gehiagotan moztu dadila. Milafloreseko bide bazterretakoa aipatzen du behin eta berriro.	Lorezaintzako arduradunak jakinari duenez, irailean Milafloreseko bide-bazter guztiak txukundu dira.
OBRAK	Galdetu du ea zenbat igogailu egingo diren Mekolan eta nola sartu behar diren garajeetara urbanizatu bitartean.	Beheko igogailua jartzeko eta urbanizatzeko lanak 2024ko uztailan amaitu ziren. Obrak egin ziren bitartean, garajeetarako sarbidea mantendu egin zen. Urbanizazio-lanak amaituta, bigarren igogailua behar ote den baloratuko da. Azkenean igogailua egingo balitz, kokapena bizilagunekin adostutakoa izango litzateke.
Zerbitzuak	Mekolako auzotar baten eskatzen du bertako argiak aldatu eta argi zuriak ipin daitezela.	Etxe berria eraiki ondoren, ingurua urbanizatu egin da eta LED puntu berriak jarri dira.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du konpon ditzatela Arratebidetik Mekolara bitarteko eskailerak. Dioenez, arriskutsu daude, estuak eta ilunak dira-eta.	Ingurua urbanizatuta, eskaileren egoera era hobetu da.